

Berrigara



TRIATLOIA

"Antxintxika" taldea osatu da

RB
RAMON BASTIDA

xey

SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

Ibargarai, 11-13 BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58



ARREGI AROZTEGIA




SUKALDEAK

Arozlan mekanikoak
Ateak
Horma-armairuak
Tarimak eta Parketak
Neoprenozko juntadun
egurrezko leihoak
PVCzko leihoak



Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03



- Garageko atek
- Burdinazko pertsianak
- Automatismoak
- Urrutiko agente tresnak eta hauen mota guztietako kopiak
- Oinezkoen atentzako sistema automatikoak
- Konponketak

Kataide industrialdea, 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxe: 943 79 08 17
110 Posta-kutxa • ARRASATE

JUBAR[®]
ATEAK, S.L.



Euskal Y

Marta Moral / Kazetaria

Egia esan ez daukat zalantza izpirik ere Euskal Y Trenbidea delakoa Autonomi Erkidegoan aurreikusita dagoen herri-lanik handiena izango dela, datozen urteotan bederen. Onerako edo txarrerako izango den, beste kontu bat da, patxadaz aztertu beharrekoa.

Urriaren 24an, Ingurumen Ministerioak arazo asko sor zezakeen tramite bat onartu zuen: Ingurumenaren Inpaktuaren Deklarazioa hain zuzen. Ezin ahaztu dezakegu Lastertasun Handiko Trenaren aurkako taldekoek, beste batzuen artean, egindako lana; urteak daramatzate gizarteari ohartarazten tren horrek ekarriko lituzkeen ondorioez.

Bene-benetan uste dut, nahiz eta erratuta egon naitekeen, proiektua beharrezkoa dela mediterranean ardatzarekin lehiatu nahi badugu. Behar-beharrezkoa da Euskal Y bukatuta egotea Madril-Valentzia, Kordoba-Malaga eta Madril-Burgos lineak egin aurretik; osterantzean, eskutik alde egingo digu.

Baina, egiazki, oraindik orain ez dago proiektua idazteko aurrekonturik,

ez eta egiteko ere, nahiz eta Alvarez Cascosek 2010. urtean bukatuta egongo dela esan. Ez da erraza hau sinestea, eta Garraio sailburu izan zen Jose Antonio Maturanak ere gogorarazi zuen jondan den astean.

Ez da bidaiarien linea izango; hasiera batean behintzat ez dago bideratuta Erkidegoan zehar lasterrago eta bidesaririk ordaindu barik ibili gura duten bidaiariendako, baizik eta salgai-garraioa trenbidera bideratzera, errepideak libre gera daitezten, bestelako bidaiari mota batzuekiko.

Baina, ez iezadazue esan ez dela gogaikarria Bergara bezalako herri ba-

“Argi dago linea hori eraikitzeak ingurumenari eraso egingo diola, baina garapenetik ez garen aldenduko zalantza daukat, industria gune batean bizi garelako”

tendako, Arrasate eta Elorrio artean Y-ren korapiloa dagoen neurrian, etxean autoa laga ahal izatea, hiriburuetara trennez joan ahal izateko, gasolindegiek bizi duten egoera eta ingurumenari ekar dakiokkeen abantaila ere kontuan hartuta.

Argi dago linea hori eraikitzeak ingurumenari eraso egingo diola, baina garapenetik ez garen aldenduko zalantza daukat, industria gune batean bizi garelako eta, hortaz, fabrikatzen diren produktuak eta bertako bizilagunak eskualdetik kanpo garraiatu behar direlako.

Eta? Beharrezkoa dela uste dut, baina egin behar bada, lehenbailehen egin behar da, ze oraingoz, beste ondorio batzuen artean, ingurumen inpaktuaren ikerketaren onarpenaren atzerapenak EB-ren finantzaketa lortzea galarratzi du-eta.

Eta, bestalde, ez iezadazue esan ez zela interesgarria izango, tren-korapiloan behinik behin, bidaiariek erabili ahal izatea.

Behingoagatik esku-eskura jartzen zitzaigula ematen zuenean!<

barruan



Libe Txintxurreta

Hezkuntza teknikaria

“Ikastetxeen arteko harremanak sendotzeko beharra ikusten dut”

8.



Ane Iraegi

Iraegi aseguruetakoko arduraduna

“Planifikatutako gauzak nahi doten moduan ez ertetziak hasarre jartzen nau”

15.



Aitor Eraña

Korrikalaria

“Giroaz disfrutatzeraz goaz New Yorkeko maratoina; lasai egingo dugu korrika”

21.

AGENDA ETA ZERBITZUAK



BEKAK

Kooperazioa.

Eusko Jaurilaritza. Lizentziaturak, batez ere arlo hauetakoak: Zuzenbidea, Ekonomia, Kazetaritza edo Soziologia. 6 espezializazio eta formakuntza beka "Cooperación al desarrollo" arloan. Urte bateko beka. Epea: azaroak 17.

Artea.

Arte Ederren Museoa; BBK. Eskaintako beka ezberdinen arabera. 2 urteko iraupena. Epea: abenduak 22.

JARDUNALDIAK

Mineralogia eta Paleontologiari buruzko XIII. astea.

Urretxuko Udala. Erakusketak, hitzaldiak, FERIA eskolentzako konferentziak, haurrentzako ekintzak (Dinosaurio erraldoia, eskalada, mehategia, urre bilaketa, haur-parkea...) Epea: urriaren 28-azaroaren 5a bitartean.

Antzerkia.

Logroñoiko Udala. Logroño XXI. Antzerki-jaialdia. Emanaldi ugari urriaren 6tik azaroaren 11ra arte, Breton antzokia eta Zutabeen aretoan, Logroñon.

IKASTAROKAK

Merkataritza elektronikoa.

Gipuzkoako Marketing Kluba. Merkataritza elektronikoari buruzko espezializazio-ikastaroa. Azaroaren 6tik otsailaren 12ra bitarte. Epea: tokia bete arte.

SARIKAK

III Contradiction saria.

Marie Claire; Calvin Klain Comestics; Plaza y Janes. Nahi duten autore guztiek parte har dezakete, gaztelaniaz idatzitako testu autobiografiko batekin, jatorrizkoa eta argitaratu gabekoa. Epea: Azaroak 15.

LAN ESKAINTZAK

Haur liburutegiko arduraduna.

Oñatiko Udala. Diplomatuak; HE 3. Epea: azaroak 12.

Agiritegirako Administrazioa.

Goi mailako batxilergoa, LH 1 edo

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatorz. Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net. Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizuke **Gazte Informazio Gunera** igortzea zuek ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoari informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Kokola

Txokolatea (haur-hizkerazko hitza).
Nai dozu kokola, Peru?

*Koko ere bai.
Artu koko.*



GORKA ORTEGA

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirrek emandako informazioa

San Juan auzoan

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Urriak 26, eguena	17 °C	14 °C	—
Urriak 27, eguakitza	19 °C	13 °C	—
Urriak 28, zapatua	23 °C	8 °C	1,9 l/m ²
Urriak 29, domeka	19 °C	11 °C	—
Urriak 30, astelehena	17 °C	6 °C	21,5 l/m ²
Urriak 31, martitzena	13 °C	7 °C	3,4 l/m ²
Azaroak 1, eguaztena	16 °C	4 °C	1,2 l/m ²

Farmaziak

Eguakitza 3:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Zapatua 4:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Domeka 5:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Astelehena 6:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Martitzena 7:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguaztena 8:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguena 9:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Ogia

Domeka 5: Ogizun.

Zozketak

Amnistiaren aldeko Batzordeen

zozketa.

Autokarabana: 041.061 zenbakia.

Irabazleak dei dezala

94 424 92 41 telefonora

azaroaren 30a baino lehen.

Euskal Herrian Euskaraz-en

zozketa.

Tunezera bidaia: 24.908 zenbakia.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Bergarako udaltzaingoa	943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa	943 76 62 46
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Mendaroko ospitalea	943 03 28 00
Zumarragako ospitalea	943 03 50 00
Arantzazuko osp. (Donostia)	943 00 70 00
Santiago ospit. (Gasteiz)	945 00 76 00
Txagorritxu osp. (Gasteiz)	945 00 70 00
Basurtoko ospitalea	94 400 60 00
Galdakaoko ospitalea	94 400 70 00
Gurutzetako ospitalea	94 600 60 00
Asepeyo	943 76-16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23
Odol emaleak	943 76 16 24
Itxaropenaren telefonoa	943 45 80 05

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Bergarako udaletxea	943 77 91 00
Antzuolako udaletxea	943 76 62 46
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Kiroldegia	943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

ABERIAK / ISTRIPUAK

Argindarra. Iberdrola	901 20 20 20
Grua. Ibai	608 67 68 21

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Idolaz	943 76 65 08
Jubilatuena Etxea. Bergara	943 76 21 40
Antzuolako jubilatuena elk.	943 76 62 71
Postetxea	943 76 26 85
Bedelkar	943 76 04 68
Akulu AEK	943 76 05 18
Udal euskaltegia	943 76 44 53
Bergarako notaritza	943 76 10 73

zorion agurrak



Ainhoa Lazkano
5ean 5 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Aitor.




Ander Fuentes
6an 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Ana.



Mikel Rodriguez
4an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, Maialen eta lagunak.



Ane Mujika
5an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Roberto Zurro
6an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Inmaculada Gantxegi
3an 27. Urte askotarako!
Gurasoak, ahizpa eta koinatua.



Lohizune Gonzalez
8an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gorka Larrañaga
7an 4 urte.
Urte askotarako eta muxu handi bat!
Etxekoak.



Maider Gago
8an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Aitziber Yera
3an 4 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Ane Aramendi
7an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Iker Mellado
6an 6 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Jokin.



Itxaso Alberdi
4an 3 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Maite.



Nora Etxarri
4an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Alazne Etxabarri
4an 2 urte.
Urte askotarako!
Amapuntakoa.



Antxon Arregi
3an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Marina Centeno
8an 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Itsaso Gantxegi
7an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Serafina Cisneros
6an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.




*Hurrengo alean,
azaroaren 10etik 16ra bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.*



Irene Ramos
3an 4 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta Fran.



Ion Mujika
4an 6 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Mikel.



BERGARA
Maialen Rodriguez San Martin
Urriak 25
ANTZUOLA
Naiara Fernandez Castro
Urriak 20

urbanoa

San Lorentzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

Geralekuak: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

mezak

Santa Marina

Domekak:
11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak:
19:30.

San Pedro

Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak:
19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalgo

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30.

Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30.
Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40.

Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40.
Domeka eta jaiegunak: 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak:

07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15.

Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 05:50, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20,

10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak:

20:45. Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.
Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 06:50, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik).

Lanegunak: 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35, 15:35, 17:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaieg.: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik).

Lanegunak: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik).

Lanegunak: 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaieg.: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik).

Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 19:00.

Bergara-Bilbo. Laneg.: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10.

Domeka eta jaieg.: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00.

Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

jaiotakoak

hildakoak

ANTZERKIA

► **"Ezustekoa"**, Teatro Topo taldearen eskutik, gaur, eguakitzatza, 22:30ean Novedadesen.

► **"Con cierto desconcierto"** domekan, 19:30ean, Arrasateko Amaia antzokian.

► **Belladona** taldearekin "Perversia: varity treatroskie" antzezlan gaur, eguakitzatza, Elorrioko Ateneoan, 23:00etan.

MUSIKA

► **Deba eta Zumaiako musika banden** kontzertua domekan, hilak 5, 12:30ean Udal Pilotalekuan.

► **Him** eta gonbidatutako taldea bihar, zapatua, 22:00etan Jam aretoan.

ERAKUSKETAK

► **Eustaquio Agirreolea** pintore eta argazkilaria erakusketa udaletxeko pleno aretoan azaroaren 12ra arte.

► **Manos Unidas** erakundearen erakusketa Kultura Etxean, hilaren 12ra arte.

► **Miguel Okinaren** pintura erakusketa azaroaren 12ra arte Durangoko Ezkurdi aretoan.

► **Marilu Unzurrunzagaren** margoak Eskoriatzako Kultura Aretoan, hilaren 19ra arte.

ANTZERKIA

Zuhaitz gaineko txabola

- Bihar, zapatua, 18:00etan
- Kartzela Zaharrean
- Sarrera: Jarduneko aisialdi karneta dutenentzat, doan. Gainerakoek, 200 pta.

Kultur Errotako programazioaren barruan, bihar, zapatua, Berbaro taldeak 11 urtetik 14 urtera bitarteko haurrei zuzendutako "Zuhaitz gaineko txabola" antzetzuko du Kartzelan. Berbaro taldeak iazko Durangoko euskal liburu eta diskoen azokan estreinatutako antzezlan honek harrera ona izan du gaztetxoaren artean. Berbarok, aurretik, itzalen antzerkia jorratu zuen "Errekamari" eta "Marik gazte nahi izan zuen" lanetan.

Oraingo honetan, Gillian Cross idazlearen ipuin batean oinarritu dira. Idoia Gilleanek egindako itzulpenari jarraituz, Unai Iturriaga bertsolaria dugu antzezlaneko hari-egile. Narrazioa eta antzerkia tartekatzen dira. Antton Irusta da istorioaren narratzailea, eta antzezleak, berriz, Mentxu Amunategi eta

Jasone Turunbai. Argumentuari dagokionez, *Jone* eta *Xantxen* lorategian zuhaitz handi bat eta sendo bat dago eta aitak zuhaitz gaineko txabola bat eraikitzea proposatuko die. Aitak Ameriketara alde egin behar izango du, baina hilero txabolarako baliagarria izango zitzaien zerbait bidaliko ziela zin egin zien...

Aitor Uriarte taldearen koordinatzailearen arabera, "Durangoko Berbaro euskara elkarteak irakurketa bultzatzeko ekitaldiak antolatzen ditu urtero eta tartean ipuin kontaketa izaten dira. Azken bi urteotan guk sortutako produkzioak aurkeztu dizkiegu gaztetxoari eta hortik sortu dira antzerki lanak hain zuzen". Orain, "Lur izeneko oihana" antzezlan prestatzen ari dira. Bergaran aurkeztuko duten lanaren iraupena 50 minutukoa da.



Mentxu Amunategi eta Jasone Turunbai dira antzezlaneko protagonistak.

► **Perretxiko erakusketa** domeka eguerdian Osintxun, Txurumilo batzordeak antolatuta.

LEHIAKETAK

► **XIV. Arrasate Lehiaketak:** ipuina, poesia,

bertsopaperak, komikia, euskalki grabazioa eta irrati-erreportajea. Lanak otsailaren 5a baino lehen aurkeztu beharko dira. Argibide gehiago Arrasateko AED elkartearen edo 943 77 12 28 telefono zenbakira deituz eskura daiteke.

IKASTAROAK

► **Grabatu hastapen ikastaroa** Beartek antolatuta. Plaza mugatuak. Argibide gehiago 948 21 26 85 edo 659 87 45 17 (Dani) telefono zenbakietan.

ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untzi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

► **Aromaterapia ikastaroa**
azaroaren 14tik abenduaren 14ra, martitzenetan eta eguene-
netan. Izen-ematea eta
argibideak Jardun elkarte,an,
943 76 08 19 zenbakian.

► **Sevillana ikastaroa**
Jam aretoan abendutik
aurrera, eguenero, 16:30etik
20:00etara. Izen-ematea (3.500
pezeta hileko) Jamen bertan.
943 76 35 81.

DEIAK

► **Gazte lokalaren** aldeko
mugimenduak eguakitzero,
19:00etan, kartzela zaharrea
egiten den bileran parte
hartzeko dei egiten die gazteei.

KINTADAK

► **1972an** jaiotakoen bazkaria
azaroaren 11n. Izen-ematea
Ettagon.

► **1938an** jaiotakoen bazkaria
azaroaren 18an Pertxa
elkartean. Izen-ematea
azaroaren 15a baino lehen
943 76 15 36 (Mariasun
Gardoki) edo 943 76 18 64
(Migel Lazkano) telefonoetan.

► **1950ean** jaiotakoen afaria
azaroaren 18an, Txuringon.
Izen-ematea (7.500 pezeta)
Kutxan azaroaren 11ra arte.
Osintxura joateko autobusa
21:00etan, Frontoi ondoan.

► **1945ean** jaiotakoen afaria
azaroaren 18an Azpeitxi

jatetxean, 21:00etan. Aurretik,
hildakoen oroimenezko meza
izango da, 19:00etan. Izen-
ematea (3.000 pezeta) Kutxan,
azaroaren 14a baino lehen.

► **1946an** jaiotakoen afaria
azaroaren 18an Tartufon.
Bertara joateko autobusa
izango da, 21:00etan,
Santa Marinaran. Izen-ematea
Tartufon bertan.
Telefonoa: 943 76 35 51.

► **1943an** jaiotakoen afaria
azaroaren 18an Antxoni
jatetxean, 21:00etan. Izen-
ematea azaroaren 15era arte
Maher, Fernandez ohial denda
edo Antxoni jatetxean.

► **1944an** jaiotakoen afaria
azaroaren 25ean Azpeitxi
jatetxean, 21:00etan. Aurretik,
19:00etan, Santa Marinaran
meza izango da. Izen-ematea
Sanchez ile apaindegian
(943 76 23 70) edo 943 76 42 08
(Arantza Alberdi) telefonoan
azaroaren 20a baino lehen
egin behar da.

► **1927an** jaiotakoen bazkaria
azaroaren 26an Antxonin,
14:30ean. Aurretik, 13:00etan,
hildakoen oroimenezko meza
izango da Santa Marinaran.
Izen-ematea Antxonin (2.000
pezetako depositua).

► **1933an** jaiotakoen bazkaria
azaroaren 26an Torrekua
jatetxean. Aurretik, 13:00etan,
meza izango da Santa
Marinaran. Izen-ematea (1.000
pezetako depositoa) Torrekuan
edo Intxortan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Shaft

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, ik. eguna: 19:30.

La leyenda del pianista en el Océano

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Bajo sospecha

Eguakitza: 22:00.

Zapatua: 19:30, 22:00.

Domeka: 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

Tigger

Zapatu eta domeka: 17:00.

ARRASATE. Amaia

Asfalto

Eguena: 21:30.

EIBAR. Unzaga

Snatch (Cerdos y diamantes)

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

La comunidad

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Evasión en la granja

Zapatua: 22:30.

Domeka: 17:00, 20:00.

Astelehena: 20:00.

Calle 54

Eguena, zine-kluba: 20:15.

ÓNATI. Santana

American psycho

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

Las confesiones del

Doctor Sachs

Eguena, zine-kluba: 20:00.

SHAFT

Zuzendaria: John Singleton.

Aktoreak: Samuel L. Jackson,
Vanessa Williams, Jeffrey
Wright. ▲ 13 URTE

John Shaft poliziak (Samuel L.
Jackson) ikasle beltz bat hil
duen Walter gaztea atxilotuko
du, baina honek Estatu Batue-
tatik alde egitea lortuko du.
Hala ere, *Shaft*ek berriz ere
kartzelara bidaltzea lortuko
du. Fidantza ordaindu eta ka-
lera iten ondoren, *Walterek*
*Shaft*i mendekua hartu nahi
izango du...



LA LEYENDA DEL PIANISTA...

Zuzendaria: Giuseppe Tornatore.

Aktoreak: Tim Roth, Melaine
Thierry, Pruitt Taylor Vince.

▲ 13 URTE

Giuseppe Tornatorek atzerri-
tar film onenaren *Oscarra* ira-
bazi zuen *Cinema Paradiso*
filmari esker. Bere azken filma
XX. mendeko hasieran girotu-
ta dago eta Europatik Estatu
Batuetarainoko bidaia itsaso-
tik egiten zuten migratzaileen
istorioak kontatzen dizkigu.
Horietako itsasontzi batean
bere bizitza osoa emango du
pianista bikain batek...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

KONDE



Burdinate 1

☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

MUJIKA

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA



Bergarako ikastetxeen arteko harremana sendotzeko plana bideratzen ari da Libe Txintxurreta. Plana Udalaren ekimena da, eta helburua, ikastetxeen arteko harremana normalizatu eta ekintza bateratuak bideratzea da. Une honetan egoeraren diagnostia egiten ari da Libe eta sei hilabetetan abian izango da plana.

G. Bergarako ikastetxeen arteko harremana sendotzeko planean ari zara. Zertan datza?

E. Ikastetxeen arteko komunikazioan oinarritzen da, harremanen oinarria komunikazioa dela kontuan izanda.

G. Zein lan ildo jarraituko duzu plana bideratzeko?

E. Lehenengo diagnostia egingo dut, hau da, egoera zein den ezagutu. Horretarako, ikastetxe bakoitzera joaten naiz eta bakoitza ezagutu: kokapen fisikoa, erai-kinaren egoera, ikasleen ezaugarriak... Azken batean, egitura ezagutu.

Ondoren, eta orain ari naiz horretan, zuzendari edo ikastetxe bakoitzeko arduradunarekin bilerak egiten ditut harremanei buruz hitz egiteko.

Bestalde, kontuan izan behar dudan beste gauza bat da, ikastetxeak Udalarekin ere harremanetan izaten direla; izan ere, Udaleko hainbat zerbitzuek, kirola eta drogamenpekotasunak esaterako, harreman zuzena dute ikastetxeekin. Hori dela eta, zerbitzu horiek ere aztertu beharra daukat, ikastetxeekin duten lan dinamika zein den jakiteko.

G. Zein ondorio atera duzu orain arte egindako lanetik?

E. Horretan nabil. Oraindik ez dut gutziz biri-

LIBE TXINTXURRETA
Hezkuntza teknikaria

“Ikastetxeen arteko harremanak normalizatzeko beharra ikusten dut”



Sei hilabete barru ipiniko du martxan Libek Bergarako eskolen arteko plana.

bildu, baina harreman erre- al baten beharra ikusten dut, bai ikastetxeen aldetik eta baita Udalaren aldetik ere.

Baina, horretan guztian galdera nagusia da, harreman errealean behar hori zertarako den; erantzuna sinplea da: ekintza bateratuak egiteko eta ikastetxeen arteko harremana normali-

“Eskola Kontseilua da eskolen arteko harremanetarako organu naturala. Kontseiluko harreman dinamika sistematizatu nahi dugu”

zatzeko. Izan ere, ikastetxeen arteko lehiakortasuna agerian dago. Oso normala da neska-mutikoen artean horrelakoak entzutea: "Ni ikastetxe honetakoa naiz eta onenak gara". Horrekin apurto nahi da, normalizatu, azken batean. Horregatik nahi dugu ikastetxeak euren artean ezagutzea eta harreman dinamika bat bul-tzatzea ekintzen bidez.

G. Orduan, badago harremanak sendotu beharra.

E. Bai. Horregatik planteatu zen plan hau. Ikastetxeen arteko harremanetarako organo naturala Eskola Kontseilua da. Hor bideratu beharko lirateke harremanak. Eta ez du behar bezala funtzionatzen; ez dira ikastetxe guztietako ordezkariak biltzen eta ez dituzte ekintza bateratuak planteatzen. Horregatik, plana hobetu egin nahi du Kontseilua eta harremanen dinamika sistematizatu: arautu, azken batean.


G. Nolakoa izan da ikastetxeen erantzuna? Ikusten zuten harremanak sendotzeko behar hori?

E. Erantzuna oso ona izan da. Plana Udalaren ekimena izan da, EH eta EAJ-EAk elkarrekin gobernatzen zutenean abian jarritakoa. Horrekin, ikastetxeek Udalaren ideia izan dela ikusten dute, eta gehienbat zain daude, Udalak zer esango duen zain. Dena dela, harremanak sendotzeko plana ondo ikusten dute. Orain, lanean hasteko, nire diagnostiarene zain daude, eta baita proposatuko dudana ekintza proposamenaren zain ere.

Ikastetxe guztietako ordezkariekin bilduko gara eta ekintza proposamena aurkezten diedanean, elkarrekin adostu beharko dugu, eurak baitira interesatu nagusiak.

itsasi hemen
zure kupoiak

Microsoft® Office® 2000



Mundua ulertzeko, euskaldunon Egunkaria

1. KUPOIA • ASTEARTEA

- ▶ Irakurterraza
- ▶ Word, Excel, PowerPoint eta Outlook programen azalpenak.
- ▶ Argibideak urratsez urrats
- ▶ Ikono eta irudi argigarriak
- ▶ 370 orrialde

2. KUPOIA • ASTEAZKENA

*Azaroaren 7tik aurrera,
Egunkariarekin batera!*

3. KUPOIA • OSTEGUNA

4. KUPOIA • OSTIRALA

**Nola jaso dezaket
OFFICE 2000 gida
liburua?**

1- Azaroaren 5eko Euskaldunon Egunkariarekin kupoiak itsasteko plantila banatuko da. 12 kupoi izango dira guztira, egunero jasoko dituzunak Egunkariarekin, azaroaren 19 bitartean.

5. KUPOIA • LARUNBATA

7. KUPOIA • ASTEARTEA

2- Kupoiz beteriko plantila kioskoan aurkeztuta, OFFICE 2000 gida liburua jaso ahal izango duzu azaroaren 19tik aurrera.

3- Kupoiren baten faltan geldituz gero, azaroaren 21ean eta 22an ordezkotako kupoiak banatuko ditugu. Edozein kupoi ordezkatzeko erabil ditzakezu ordezkotakoak.

8. KUPOIA • ASTEAZKENA

10. KUPOIA • OSTIRALA

OHARRA: liburua eskuratu ahal izateko, banaketa arazorik ez edukitzearren, 200 pezeta ordaindu beharko da.

HARPIDEDUN
guztiak etxean jasoko dute liburua **DOAN**, kupoirik bildu gabe.

11. KUPOIA • LARUNBATA

DATU PERTSONALAK

Izen abizenak: Adina: Tfnua:
Helbidea: Herria: P.k.: Herrialdea:

AGUNTZAILEAK:

EGILEAK:




Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Ministerio de Cultura, Euzkera, Juventud y Deportes
Departamento de Cultura, Euzkera, Juventud y Deportes
www.gipuzkoa.net



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
www.bizkaia.net



kutxa
zuri esker



*Gida
liburua
doan!*

Egunkaria
2000ko urtarrilaren 4a - 11. orria - 3. dag. orrialdea - Sarriena 121. da. 8. orria
Punta-puntako tresna
Office 2000, informatikaren mundua Egunkariaren eskutik
Iparaldeko Biltzarraren sortzeko delia egin du Iparretarrak erakundeak
Espainiako Auzitegi Gorenak itoizko segurtasuna ikertuko du. 14

Lau mozio bozkatu eta bat ere ez zen onartu asteleheneko plenoan

EH taldeak hiru aurkeztu zituen eta alderdi popularrak Udalbiltzari buruzko bat

Joan zen astelehenean ohiko osoko bilkura egin zen. Hamalau puntu zeuden bozkatzeko eta horietako lau mozioak ziren. Bat alderdi popularrak aurkeztu zuen eta beste hirurak EH taldeak.

PP alderdiak Udalbiltzaren inguruko mozioa aurkeztu zuen asteleheneko osoko bilkuran. Horren arabera, Bergarako Udalak Udalbiltzan parte hartzeko hartutako erabakia bertan behera uztea eskatu zuen eta Udalbiltzari egiten zaion aportazio ekonomikoa erretiratzeko.

Mozioa ez zen onartu. Izan ere, PSE-EE eta PP alderdien baiezko botoa bakarrik jaso zuen. EAJ, EA eta EH alderdiek ezezkoa eman zioten Jose Luis Martinez de Esproncedaren mozioari.



Martinez de Espronceda PPko zinegotzia ere (eskuman), izan zen plenoan.

EHk HIRU MOZIO

Hiru mozio aurkeztu zituen EH taldeak. Lehenengoa Beasain-Durango errepideari dagokio. Mozioaren bidez, Bergarako saihezbidearen proiektua berraztertzea eta egokitzea eskatu nahi dio EHk Diputazioari. Era berean, Zumarraga-Bergaratzatiko proiektuaren azalpe-

nak eskatu nahi dizkio Diputazioari eta bide guztien trazaketa lau erreikoa izango dela ziurtatzea.

EAJ, EA, PSE-EE eta PP alderdiek ezezko botoa eman zioten mozioari eta ez zen onartu.

Aurkako botoa azaltzeko orduan, Victoriano Gallastegi alkateak esan zue-

nez, ez du zentzurik une honetan Diputazioan mozio hori aurkezteak. Izan ere, Mankomunitatetik, onartuta eta igorrita baitago mozio bera Diputaziora. Bestalde, Mankomunitatea gaia jarraitzen ari dela gaineratu zuen.


Bigarren mozioa Asier Bardezi gaztearen atxiloketa, epaiketa eta kartzelaratzearen ingurukoa izan zen. EHren ustez, Bardeziren atxiloketak helburu politikoa du eta bere kontrako kargoak erabat sinestezinak dira. Alderdi guztiek, EHk izan ezik, aurkako botoa eman zuten.

Hirugarren mozioa Lizarr-Garaziko akordioaren edukia indarrean jarri eta garatzearen aldekoa izan zen. EAK oinarri bereko beste mozio bat aurkeztu zuen. EAre mozioa onartu zen, EHren ustez kontramozioa izan zena.

Trenbide zaharreko bidea eta Ondartzako zubia plenora

Joan zen astelehenean egindako osoko bilkuran sortu ziren bi gai horiek erregu eta galderen atalean. EH taldeko Jesus Mari Garitanok, itxita dauden Ondartzako zubia eta Ibargarai pareko trenbide zaharragatik azalpenak eskatu zizkien gobernuko taldeari.

Ondartzako zubia Udalean bainetik eskatu gabe itxi zuten enpresa eraikitzaileek, eta alkateak plenoan esandakoaren arabera, horren aurreko neurriak hartu dira. Trenbide zaha-



Martxoan itxi zuten oinezkoendako bidea.

ARTXIBOA

rrari dagokionez, Labegaraieta aldetik datozen oinezkoek, Ibargarai kalea gurutzatu beharra izaten dute, kotxe artean herri erdigunera hurbiltzeko. Izan ere, Lasagabaster zubitik atera bezain pronto trenbidea moztuta dago. Honen aurrean, EHk lanak azkar bukatzea eskatu zuen, oinezkoentzat arriskutsua baita Ibargarain bidea gurutzatzea. Alkateak esan zuenez, esan diote dagoeneko enpresa eraikitzaileari lanak ahalik eta azkarren bukatzeko.

Deba Ibaia Gipuzkoako kutsatuena dela dio Diputazioaren azterketak

Horixe da Foru Aldundiak 1999an egindako Gipuzkoako ibaien ur-kalitatearen ikerketatik ondorioztatu duena. Diputazioaren txostenaren arabera, Deba-ko goi ibarrean, hau da, Leintz inguruan, oso kalitate ona du urak. Hala ere, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko isurketengatik, uraren kalitatea ikaragarri txartzen da. Eskoriatza eta Arrasate artekoa Gipuzkoako inguru kaltetuenetako bat da, eta urak izan dezakeen kalitatearik txarrenea du.

Ibaiaaren arroa jarraituta, San Prudentzion uraren kalitatea ez da askoz hobea. Oñatiko ibai-adarretik ura kutsatuta dator, eta Bergarara heltzean kutsadura kon-



Bergaran isurketa toxikoak antzeman dira.

zentrazioa zerbait jaisten den arren, ez da askoz hobea. Gainera, Bergaran isurketa toxikoak antzeman dira azaltzen du txostenak.

Maltzagarri behera, kalitateak behera egiten du be-

rriz, eta urak izan dezakeen kalitatearik txarrenea du.

Txostenaren arabera, Deba arroan urak hobetzeko aukerak hondakin-uren arazketa-proiektuaren menpe daude erabat.

Kontzentrazioa San Martin plazan

Martitzenean, hogeita hamar lagun inguru kontzentratu ziren San Martin plazan, 12:00etan, ETaren azken atentatua salatzeke asmoz. Talde armatuak Francisco Querol Lombardero Auzitegi Goreneko areto militarreko magistratu eta Armadako generala hil zuen bonba-autoz joan zen astelehenean Madrilan. Atentatu berean magistratuaren bizkartzaina eta gidaria hil ziren.

Istripua Osintxuko saihesbidean

Martitzenean, H.B.B. 20 urteko gaztea larriki zaurituta gertatu zen Osintxuko saihesbidean izandako istripuan. Eibarko gaztearen koteak kamioi baten kontra jo zuen eguerdiko 12:40 aldera. Txokearen ondorioz, kotxea kamioiaren azpian geratu zen eta suhiltzaileek atara behar izan zuten handik gaztea. Arrasateko ospitalera eraman zuen ambulantiak. Trafikoa Osintxu auzotik desbideratu beharra egon zen.

Birziklapenaren Gidaliburua kaleratu berri du Mankomunitateak

Debagoieneko Mankomunitateak Birziklapenaren gidaliburua argitaratu berri du. Gidaliburuan, Mankomunitateak herritarren esku jarritako hondakinak biltzeko zerbitzuen berri ematen da. Era berean, zerbitzu bakoitzari buruzko argibideak ematen dira, ingurumena ere kontuan hartuz.

Herritarra bere laguntza ematera bultzatu nahi da,

eta helburu horrekin hainbat aholku ematen dira bertan. Gainera, liburuxkaz baliatuz, birziklatzea ingurumena babesteko nahitaezkoa dela azaldu nahi die Mankomunitateak herritarrei, baina are garrantzitsua goa dela egunero sortzen dugun zabor-kopurua gutxitzea (gutxi gorabehera, kilo bat biztanleko eta eguneko).



PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

610 25 99 82 / 610 25 40 37
943 76 24 11

Amillaga 1, 10 pabilioia. 20570 BERGARA

Pintura-lanak orokorrean
Pintura industrialia
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

Berrigara

428 zenbakia.
2000ko azaroaren 3a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkartea

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Ukue Zabaleta.
Harpidetzatzailea: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereibar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Isa Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugaldel.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Antxon Agirre Sorondo,
Juan Martin Elexpuru.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga, Oñati).

Azaleko argazkia: Joseba Zuzeta

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Begarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

BIDEZKO MERKATARITZA

Kafea, platanoak, arropak, oinetakoak... Gure eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun hainbat produkturen negozioak miseria eta menpekotasuna sortzen ditu hirugarren munduan. Gure bizimoduak aberatsak aberatsago egin eta natura eta gizakiak hondatzen dituen kate batean murgiltzen gaitu.

Naturaren aberastasunak eta besteren izerdia horren merke erosten ditugula eta, harrotzeko bezaian gupidagabe ote gara?

Hala ez bada, zer egin horren legezko eta bidegabeko den merkatu-sistema honen menpe bizi diren nekazari eta langile esplotatuen sufrimendua zuzentzeko?

Eta gure eguneroko botoa erabiliko bagenu? Zerbait erosten dugun bakoitzean egiten jarraitzearen aldeko botoa ematen dugu eta erosten ez dugunean egiten ez jarraitzearen aldekoa.

Bidezko Merkataritzak aukera horixe zabaltzen di-

gu. Hirugarren munduan ekoiztutako zerbait erosi eta langile eta nekazariak gizaki gisa tratatuak izan diren ziurtasuna.

Harreman, Bidezko Merkataritza Denda

ETXANIZEN EGOERA

Beste behin, pasa den hilaren 23an, "El Mundo" egunkarian honako informazio hau aurkitu genuen: "Datozen hilabeteotan, gutxienez, 16 hiltzaile ETA-kide kartzelatik irtengo dira". Egunkari beraren 10. orrialdean eta "ETA-ko hiltzaileen zigorrak" izenburuarekin, gure lagun eta auzokidea den Jose Maria Etxaniz aita-tzen zen.

Informazioaren desitxuratzeko horren aurrean, Bergarako herriari azaldu nahi diogu, mota horretako artikuluek oztopatu egiten dutela, gobernuak legea betez gero, kalean egon beharko liritekeen presoek kalera-tzea.

Argi dugu mundu osoan eta edozein erregimen politikan, gutxi direla sakaba-

natuta, lehen gradoan eta etengabeko bakardadean, 21 urteko kartzela zigorrak betetzen dituztenak.

Bestalde, zigorraren 3/4ak beteta dituzenez, 1995. urtetik baldintzapeko askatasunean egon beharko litzateke; hala ere, 1996. urtean ezarri ziren errepresio neurri berrien eraginez, posible da 23 urteko kartzela-zigorrak bete behar izatea.

Horren aurrean, Jose Mariaren eskubideen errespetuaren alde egingo diren mobilizazioekin adi egoteko dei egiten diogu Bergarako herriari. Era berean, uste dugu ez duela zertan hiltzailea dela esaten duten estatuko komunikabideen erasorik jasan behar; izan ere, 1980. urteko 66. sumarioan eta horri dagokion 1981. urteko otsailaren 21eko 30/1981 zenbakidun sententzian ez zaio akusazio hori ezartzen.

Auto Judizialaren desitxuratzeko horren aurrean, plataforma honek erabaki du "El Mundo" egunkariaren aurkako kereila bat jartzea.

Bergarara plataforma

tira biraka peru azkarate



atrebentzia ezpada

Udalak antolatzen dabean Udazken Kultureleko emanaldietara juteko ohitturarik badaukazu?



Arkaitz Gimber

Ez, ez naiz horrelakuetara juten.



Karmele Lopez

Asko ez; irakurtzen dot ekitaldi asko antolatzen dittuala, baiña askotan ezin izaten naiz jun. Erakusketara bai, jun izan naiz.



M. Eugenia Martinez

Normalian ez naiz juten; juten naizenian, alabiagaittik izeten da.



Jose Luis Kapanaga

Bai, askotan juten naiz. Jun zan astian, esaterako, Donostiako Orfeoiaeren kontzertuan egon nitzan.



Dominga Perez

Ez; ez naiz iñoiz jun. Baina, oso ondo pentsatzen jat Udalak horrelakuak antolatzia.



Raul Ruiz

Ez nekixen udazken kulturalik antolatzen zanik be.

bai, esan!




Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

GUNE LABAINKORRAK HAINBAT KALETAN

Ana Lopezek deitu zigun martitzenean, Kruz Gallastegi eta Ibargarai kaleetako egoera arriskutsuaren berri emateko. Ana Lopezek arabera, euria egiten duen bakoitzean, Ibargarain egin dituzten etxe berrien arkupean eta Kruz Gallastegi kalean, lurzorua oso labainkorra egoten da eta istripu larriren bat gertatu baino lehen, dagokionak beharrezko neurriak har ditzala eskatu nahi du. Lopezek uste-tan, batez ere jende edade-tuak dauka bertan erortzeko aukera eta, Ibargarain egindako etxe berrien kasuan, ez du logikoa ikusten lurzorurako oraindik ere horrelako material labainkorrak erabiltzea. Ana Lopezek dio eraikuntza berrietan segurtasunari bere garrantzia eman behar zaiola.

POL-POL Taberna

943 76 07 78



CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35


ZUBIAURRE aroztegia

- Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
- Sarrerarako eta barrurako atea.
- Neurrira egindako horma-armairuak.
- Tarima eta parketak.
- Zurezko leihoak.
- Era guztietako arotz-lanak.

Zubiaurre 2, Bergara.
Tf. 943 76 15 14 / 943 76 35 73

gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

Ur-bide

ITURGINTZA

Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

Donostiako Orfeoia Bergaran

San Pedro parrokia jendez gainezka zegoela, Donostiako Orfeoia kontzertu bikaina eskaini zuen zapatuan Bergaran. Kontzertuaren lehen zatian, **Jose Antonio Sainz Alfaro-ren zuzendaritzapean**, abesbatza osatzen duten 90 lagunek korutik abestu zuten **Jose Manuel Azkue** organistaren laguntzaz. Ondoren, altaretik, kontzertuaren bigarren zatitari ekin zioten eta zarzuela, opera eta abesti herrikoia abestu zituzten, entzuleen gozamenerako. **Patxi Aizpiri** pianistaren laguntza izan zuen Orfeoia. San Pedron bildutako zaleek txalo zaparrada luzea eskaini zieten donostiarrei eta amaieran, umorez, publizitate sintonia ezagunak abestu zituzten. Entzuleak oso pozik azaldu ziren Orfeoia erakutsitako mailarekin.



Hamabostaldiari aguuur!

Zapatuan **San Joxepe** jubilatuen elkarteak antolatutako Kultur Hamabostaldiari bukaera eman zitzaion. Eguerdiko amaiera ekitaldiaren ostean, **140 lagun** inguru bildu ziren Zabalotegiko pilotalekuan egindako bazkarian. Bazkalosteko dantzaldia, ohikoa denez, **Iñaki Quintanilla**k alaitu zuen eta giro ona izan zen nagusi. Era berean, 25 laguni abenduaren 1erako Bilbora egun osoko irteera tokatu zitzaion. Bestalde, joan zen eguenean, globalizazioaren gainean egindako mahai-inguruak jende asko erakarri zuen.



Behobia-Txiki arrakastatsua

70 lagun inguruk hartu zuen parte Behobia-Txikiko bosgarren edizioan zapatuan. **Antzuolatik eta Elgoibarretik** etorritako antxintxikalariak ere izan ziren tartean. Korrika egiteko giro aproposa izan zuten partaideek eta erritmo lasaian bete zituzten 15 kilometroak. Lasterketa lehiakorra ez denez, korrikalariak tropelean joan ziren ibilbide osoan eta ordu eta erdi inguruko denboran amaitu zuten proba. Ondorengo bazkarian 22 lagun bildu ziren Iraho jatetxean. Behobia-Txiki lasterketan izandako gehienek azaroaren 12ko **Behobia-Donostia** proban hartuko dute parte. Izen-ematea zapatuta arte zabalik dago Lazkano oinetako dendan.



Ane Iraegik bi urte daramatza Iraegi Lagun Aro aseguru etxian lanian. Bere aittak jarri zeban bulego hau, eta gaur egun bera da arduraduna. Anek 25 urte dauzka, eta Zuzenbide ikasketak egin zittuan.

Ane Iraegi

Aldatuko ziñuke zure lana?

Gustatzen jat nere lana, baiña momentu batzutan gustora aldatuko neuke, bai.

Zertan lan egingo ziñuke gustora?

Abokatu moduan.

Zer da gehixen eta gutxien gustatzen jatzuna?

Gehixen, jendiarekin harremanetan egotia; gutxien, berriz, polizekin-ta arazoak sortzea.

Zure buleguan, zer ez dozu sekula falta izaten?

Paperak eta boligrafuak.

Asteburuko ordu aldaketa nabaritu dozu?

Ez, zapatu gabian etxian geratu nitzan. Bueno, lo egiteko ordubete gehixago euki neban.

Udazkena, edo beste urtaro bat nahixago?

Ez daukat lehentasunik.

Zelan definituko ziñuke zeure burua?

Pertsona irekixa naiz, eta baita lasaixa be... bueno, batzutan.

Bestiengan zer da gehixen apreziatzen dozuna?

Zintzotasuna.

Zure bikotekideari zer ez zontzake iñoiz barkatuko?

Gizur haundi bat, gizur potolo bat.

Zerk jartzen zaittu hasarre bizixan?

Planifikatutako gauzak nahi doten moduan ez ertetzia.

Domu Santu egunian kanposantura juteko ohiturarik badaukazu?

Txikittan gehixago juten nitzan; baiña, aurten jungo naiz, aitta han daukagu-ta.

Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Etxian lasai-lasai egotia edo lagunekin kalera ertetzia.

Egunkarixa, irratixa ala telebista?

Telebista batez be.

Telebistako saiorik gustokuena?

Gehixen ikusten dotena "Goenkale" da, ixa egunero ikusten dot.

Zineman ikusi dozun azkenengo pelikulia?

"Año Mariano". Baiña, gehixen gustatu jatenen artian, "Trainspotting".

Liburu bat?

Irakurri doten azkena, Milan Kunderaren "La insupportable levedad del ser".

Kolore bat?

Urdin illuna.

Usain bat?

Usain goxo bat, usain xuabe bat, ez dakitt juxtu zerena.

Eta bukatzeko, hiru desio?

Hiru esaten ez dakitt, baiña ahal dan eta ondoen bizitzia, eta etxe bat edukitzia be ez legoke gaizki.



BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

Dixula

BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09



Tartufo Jatekoea

Eguneko menuak.

Asteburuetan, menu berezia 1.500 pezetan!

San Juan auzoa, Elgetako bidea, Bergara. Tf. 943 76 35 51.

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

Autobidea eta autobia

Eibartik Gasteizera eta Beasaindik Durangora

Bergaran, eta, oro har, Debagoieneko bailara osoan, ez dira makalak ditugun zirkulazio arazoak. Egunero egunero milaka auto irteten dira errepideetara eta auto ilara handiak sortzen dira puntu jakin batzuetan, Elorregiko bidegurutzean edota San Antonio inguruan kasu. Gaur egun, hala ere, bi errepide proiektu dauzkagu abian, teoriarik, behintzat, arazo hauek murriztuko lituzketenak. Bata, Eibar-Gasteiz autobidea, dagoeneko eraikitzen dihardutena; bestea, berriz, Beasain-Durango errepidea, azkenaldian horrenbeste ika-mika sortu dituena.

Eibar-Gasteiz autobidearen ibilbidea 1997ko uztailaren 30ean aurkeztu zen. Urte bereko irailan, berriz, autobideak zeharkatuko dituen herrietako udal-tan ikusgai jarri zen proiektua, eta alegazioak aurkezteko aukera ere izan zen garai hartan. Bergarako Udalak berak hainbat alegazio aurkeztu zituen epe horretan Gipuzkoako Foru Aldundian.

Autobide horrek 46,2 kilometroko luzera izango du. Aurrekontua, berriz, ia 100.000 milioi pezetakoa.

HIRU TRAMO EDO TARTE

Eibar-Gasteiz A-1 autobideko sektore bat izango da, eta hiru tartetan banatuta dago: lehenengo tartea Gasteiztik Eskoriatza iparralderainokoa da, bigarrena Eskoriatza iparraldetik Bergara hegoalderainokoa, eta, azkenik, Bergara hegoalde-tik Maltzagarrainoko tartea dugu.

Azken tarte horrek 11,760 kilometroko luzera izango du, eta aurrekontua, berriz, 32.500 milioi baino gehiagokoa. Azken hau hirugarren tartea izanik ere, bertan hasi ziren lanak iazko

maiatza bukaeran, lanen A faseari dagozkionak, hain zuzen ere.

Duela bi aste Ondartzako zubia, Bergarako irteera garrantzitsuenetako bat, itxi egin zuten. Bertan, biribil bat egiten dihardute, alde batetik, saihesbideko zirkulazioa erregulatzeko, eta, bestetik, hor ondoan kokatuko delako Eibar-Gasteiz autobiderako sarrera bat.

TUNELAK NAGUSI

46 kilometroko tartean 12 tunel aurreikusten dira proiektuan, horietako bi Bergaran: San Martzialen eta Lezarrin, hain zuzen ere.

Azken bi tunelak A faseari dagozkio. Lezarrin bi tunelak Bergaran, 1.220 metrokoa bakoitza, uztailan amaitu ziren; Soroluzen, Gallastegiko bi tuneletako bakoitzak 2.370 metro izango ditu, Gipuzkoako luzeenetakoa izango dira; azken hauek irailean hasi ziren zulatzen.

Horrenbeste tunel egiteko arrazoia, Gipuzkoako Foru Aldundiak azaldukoaren arabera, "ingurugiroa zaintzeari emandako lehentasunaren adierazgarri da". Izan ere, inguru oso malkartsu eta menditsua da zonalde hau. Kontuan

hartu behar da, gainera, tunelek duten garrantziaz ohartzeko, aurrekontuaren %70 dagokiela.

BEASAIN-DURANGO KORRIDOREA

Honako errepide hau, berriz, ez da autobide bat izango, ordainsaririk gabeko errepide bat baizik, korridore bat. Oraingoz, hiru errepide zati daude eginda: Beasain eta Ormaiztegi bitartekoa, Arrasatetik Epelerainokoa, eta Eloorrioko saihesbidea.

Hasiera batean, EAEko I. Errepide Planean Beasain-Zumarraga zatia 2000. urterako eginda egotea aurreikusten zen, eta Zumarraga-Bergara zatia, berriz, 2004. urterako. II. Errepide Planean, aldiz, Beasain-Zumarraga errepide zatia 2004. urtera atzeratzen da, eta Zumarragatik Bergararainokoa 2009ra arte.

San Antonioko saihesbidea edo Bergarako ekialdeko saihesbidea egiteko lanak datorren urteko urtarrilean hasiko dira, duela bi urte hastekoak baziren ere. Bi urtez luzatuko dira lanok. Saihesbide hau Galartzatik Labegaraietako teileria zaharreraino joango da, eta Aritzetak San Migel azpitik pasatuko da. Ekialdeko saihesbide honek lotura izango du, era berean, Eibar-Gasteiz autobidearekin.

IKA-MIKAK KORRIDOREAREN INGURUAN

Errepide honen inguruan ere ika-mika asko izan da hasiera-hasieratik, eta ika-mikok bere horretan jarraitzen dute neurri handi batean. Alde batetik, lanen atzerapena dela eta; bestetik, errei kopuruagatik. Ildo honetatik, 1998ko



Bi errepide hauek zirkulazio arazoak arinduko dituztela aurreikusten da.

urtarrilean alegazio bat aurkeztu zuen Bergarako Udalak, Bergaratik Ormaiztegirainoko errepide zatia lau errekoa izatea eskatuz, eta ez bikoa, Foru Aldundiak aurreikusten zuen moduan. Eskaera hau ez zen onartua izan garai hartan, nahiz eta Mankomunitateko zortzi udalak ere bat egin proposamen edo eskari honekin. Hala ere, Diputazioak lursail zati bat erreserbatzea aurreikusi du, etorkizunean, beharrezkoa ikusten bada, bitik lau errei izatera pasatzeko.

Bestalde, Deskargako zatian ibilgailu geldoentzako errei bat ere egingo da Diputazioaren proiektuaren arabera. Mankomunitatea ere etengabe dago Diputazioarekin harremanetan arazo hauek konpontzeko asmoz.<

Zumarraga eta
Bergara arteko
errepideak bi
erreñi izango ditu;
hori dela eta
ika-mika ugari
sortu da


EHk mozioa aurkeztu zuen eta ez zen onartua izan

Aste honetan bertan, Bergarako udaletxean astelehenean egin zen plenoan, mozio bat aurkeztu zuen Euskal Herritarrok alderdiak, baina ez zen onartua izan. Alkatearen arabera, bere garaian alegazioa aurkeztu zuen udalak honen inguruan, eta Mankomunitateak ere hortan dihardu lanean. Horregatik ez zuten mozioa onartu. EHren jarrera argia da: Beasain-Durango errepideari behar besteko garrantzia ez zaiola ematen salatzen du, eta lau erreitako autobidea izatea eskatzen. EHren ustez, Beasain-Durango korridorea geldiarazita eta alde batera utzita edukitzearen arrazoia, Eibar-Gasteiz proiektuan aurkitzen da. Izan ere, EHren arabera, korridorea behar bezala egiten baldin

bada, hau da, lau erreitakoa eta garaiz, autobidea ez luke horrenbeste jende erabiliko, peajea ordaindu beharra dagoelako.

EHren ustez, hiru dira Beasain-Durangoren garrantziaren arazoak: batetik, orain dauden errepide nagusi guztiak iparraldetik hegoaldera doaz, baina ez dago ekialdetik mendebalderainoko errepide nagusirik. Beasain-Durango hutsune hau beteko luke. Bestalde, eskualdeak batzeko balio izango luke; eta, azkenik, eskualdeko herriak ere batuko lituzke euren artean, oraingo trafiko arazoak murriztuz.

Aurrera begira, Diputazioa presionatzen jarraitzeko asmoa erakutsi du EHk. Horretarako, besteak beste, herri kontsulta bat egiteko asmoa dauka.



adituen esanetan

Aromaterapia

Jendeak uste du aromaterapia gauza berria dela, baina egiptoarren garaian (kristo aurreko 2000. urtean-edo) esentzien erabilera oso zabaldua zegoen eta X.mendetik aurrera ere esentziak destilatzen hasi ziren, osasunerako onak zirelakoan. Usaimenean oinarrituta dagoen terapia oraindik gure artean ez da asko ezagutzen, baina anglosaxoniarrak herrialdeetan, aldiz, asko garatu da.

Landareen olio esentziak destilazioaren bidez lortzen dira eta ezagunenak, behar bada, erromeroa, ezkaia, zitrikoak, menta, eukaliptikoa edo kanela dira. Badira hain ezagunak ez diren beste batzuk, *ylang-ylang*, *vetiver* edo *lemon-grass* izenekoak hain zuzen.

Esentzia bakoitzak elementu kimikoak ditu eta, gorputzean barneratzean, erreakzio ezberdinak eragiten dituzte. Poroek ez diete trabarik egiten eta azaletik barneratzen dira eta arnasa hartzerakoan ere molekula hauek biriketarik jasotzeko aukera dago. Landa-



ITZIAR SALEGI

Aromaterapeuta

"Gure artean, usaimenean oinarrituta dagoen terapia oraindik ez da asko ezagutzen, baina aspalditik erabili izan da"

reen indarra osasuna hobetzeko eta emozioak orekatzeko erabil dezakegu. Nahasketaren ehuneko hau da: almendra olio (%97) eta esentzia (%3).

Inhalazioak, masajeak, lurrinak eginez, sauna hartzerakoan edo *kemadoreekin* (kandelekin erreaz) egiten da aromaterapia eta zirkulazio-sisteman, giharretan, arnasketasisteman, liseri-aparatuan eta sistema endokrinoan eragina izaten du. Psikikoki eta estetikoki ere hobekuntzak lor daitezke. Azken batean, osasunerako, kos-

metikarako eta higiene pertsonalerako produktuak oso modu errezean egin ditzakegu aromaterapiarekin. Etxean erabiltzeko moduko formulak ikastea ez da batere zaila.

Jardunek antolatuta, aromaterapia ikastaroa izango da azaroaren 14tik abenduaren 14ra bitartean eta bertan, besteak beste, hainbat olio esentzia aztertuko ditugu eta masajeak emateko lozioak, kremak, txanpuak edo maskarillak zelan egiten diren ikusiko dugu.

bergarako errota



BILLOTEGI-BOLU

Bilotegei errotan, 1890eko errolda ofizialaren arabera, bi pertsona bizi ziren garai hartan: Ignacio Gantxegi Gantxegi, 63 urtekoa, eta Alejandro Gantxegi Astigarraga, 29 urtekoa. Biak ere errotariak (ez dakite ez idazten ez eta irakurtzen ere).

1895ean Ignacio A. Gantxegi zegoen errotari.

1917ko GAOan azaltzen denez, garai hartan Eladio Urdangarin magistratu bilbotarra zen errotaren jabea.

1927an errotaren urak Bergara hornitzeko erabiltzen hasi ziren.

Erabiltzen ez den urarekin, Valentín Movillak, Sociedad Sobrino de Fernandez y Cia-ren ordezkari bezala, energia elektrikoa lortu nahi du Billotegin. Horretarako eskaria egiten du. 1929. urtea zen.

1949an berriro ere herriko irin-errotak bezala agertzen da, Francisco Olaberria Gantxegiren izenean. Bestalde, 1954-1956 bitartean Bonifacio, Franciscoren anaia, izan zen errotaren jabea.

1953ko GAO:

"On Gonzalo eta On Francisco Movilla Fernandezek bonakoa eskatzen dute: 1901eko apirilaren 12ko errege-dekretuak sortutako herriko uren ustiapen erregistroan sartzea; hauek Muzkirixu-errekako erreteneko urak erabiltzen dituzte; euren jabetzakoa den Bergarako BILLOTEGI ERROTARA isurtzen dituzte urok, industriari erabiltzeko..."

Herriari jakinarazten zaio..."

1955ean eskari bera egiten da.

Muzkirixu-errekako urekin egiten zuen lan. Bi harri pare zituen eta burdinazko errodeteen bidez jartzen ziren martxan. Komisio edo "laka" lanarengatik kobratzen zuten: %10 espeziatan.

1969an lan egiteari utzi zion.

KOKAPENA: Osintxuko bidegurutzean, errekan gora joan (Muzkirixu-errekak) eta kilometro batera.



Landareen propietateek gure osasunari on egiten diotela frogatuta dago. ARTXIBOA

Antxon Agirre Sorondo

Agirrebeña

JATETXEA



Agirrebeña jatetxeak zera jakinarazi nahi die bere bezero eta lagunei:

Hemendik aurrera, maiatzera arte, eguakitz, zapatu eta jai bezperetan emango ditugu afariak.

Zure zerbitzura.

Ongi etorri.

Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

Pizza aukerarik zabalena!



Artekalea 1, BERGARA.

Zapatu eta domeketan eguerdian zabalik

Asteburuetan etxez-etxeko zerbitzua

ETXERA ERAMATEKO EGUNEKO MENUA ere badaukagu!

ENTZALADAK

ENTZALADA MISTOA. 600
ARROZ ENTZALADA. 625
OILASKO ENTZALADA. 650
PASTA ENTZALADA. 625
GANBA KOKTELA. 700
PIPER ETA ANTIXOA PINTXOA ROKEFORT SALTSAZ. 750

PIZZAK

MARGARITA (Oregonoa, piperbeltza, albaraka). 775
TIPULA. 850
FUNGHI (Txanpinoiak). 975
BEGETALA (Kalabazina, tipula, esparragoa). 975
PEPERONI (Pikillo piperra, berakatza). 1.125
ROKEFORT. 950
4 GAZTA (Gazta nahasketa). 1.075
NAPOLI (Antxoak, olibak). 950
TONNO (Atuna). 975
DI MARE (Ganbak, antxoak, muskuiluak, atuna). 1.100
IZOKINA (Izokin ketua, tipula). 1.125
PROSCIUITO (York urdaiazpikoa). 1.000
MEXIKARRA (Okela pikatua eta berakatzarekin). 1.075
4 STACCIONE (York, alkatxofak, txanpinoiak). 1.075
BOLOGNEA (Okela pikatua). 1.075
EULALIA (Piper berdeak, hirugiharrea). 1.075
BASERRI (Txorizoa, hirugiharrea, arraultza). 1.125
ARTEKALE (Okela pikatua, arraultza, pikillo piperrak). 1.125
HONDDOAK. 1.500
TROPIKALA (Piña, York urdaiazpikoa). 1.075

Orain telefono zenbaki berria:

943 76 25 37

PASTA

SPAGHETTI BOLOGNEA. 875
SPAGHETTI CARBONARA. 875
SPAGHETTI MINA BERAKATZAREKIN ETA PIKANTEAREKIN. 875
FUSILLI ROSSA. 900
TAGLIATELLE. 900
RIGATONI 4 GAZTA. 900
UKONDOA ESPINAKA SALTSAREKIN. 900
OKEL eta GAZTA RAVIOLIAK. 950
NIDOS AL PESTO. 900
LASAGNA. 950
BARAZKI eta OKEL KANELOIAK. 900
KALABAZIN BETAOK. 900
ARRAIN LASAGNA. 950


EBAKI hemendik eta eraman beti aldean edo itsatsi zure hozkailuan!



Datorren denboraldiari begira triatloi taldea osatu da Bergaran

"Antxintxika" taldekoak euskal zirkuituan arituko dira

Bergara eta Antzuolako triatloizale talde batek "Antxintxika" taldea osatu du. Zazpi lagun elkartu eta datorren denboraldian euskal duatloi eta triatloi zirkuituan parte hartzeko konpromisoa hartu dute. Triatloia egin nahi duten kirolzale guztiei zabalik dago taldea.



Goian "Antxintxika"ko kideak eta taldearen logotipoa.

Jakingo duzue, triatloian igeriketa, txirringularriz eta korrika tartekatzen dira. Duatloietan, aldiz, korrika eta bizikleta. "Antxintxika" taldeko kideek euskal duatloi eta triatloi zirkuituan parte hartzeko asmoa dute udaberriak aurrera. Hamar duatloi eta bost bat triatloi izango dira. Abenduan ekingo diote denboraldia gertatzeari. Bien bitartean, hainbat korrika lasterketan izango dira.

Antzuolako Julen Garitano eta Aitor eta Iker Larrea anaiak eta Bergarako Ariz Kortabarria, Aitor Rementeria, Xabier Uribesalgo eta Joseba Zuzaeta denboraldiari ekiteko prest dira. Biciprecision Igartua izango da euren babeslea. Esan bezala, duatloi eta triatloiak ko-

rrituko dituzte. Joseba Zuzaetaren hitzetan, "bailara mailan triatloirako zaletasuna badago eta, ikusirik hemen ere jendea bere kontu-

ra baziharduela, taldea osatzea pentsatu genuen. Karlos Baleztenak eta Juan Martin Elexpuruk, adibidez, gurekin korrituko dute ziu-

rrenik proba batzutan. Taldea handitzen joatea nahiko genuke".

Neguan nagusiki errodilloarekin entrenatuko dira eta astebukaerak aprobeztatuko dituzte bizikletan ibiltzeko. Era berean, Udalak erraztasunak eman dizkie igerilekuan entrenatzeko. Korrikari dagokionez, Mekolaldera bitarteko tartea ez dago argizatuta, eta horren falta nabaritu dute.

ATZERRIRA


Lehen aipatutako euskal zirkuituaz gain, uztailean Frantziako Foiseko duatloian (24 kilometro korrika eta 70 bizikletan) edo Danimarkan, abuztuan izango den Ironman proban (3,8 km. igerian, 160 bizikletan eta maratonia), parte hartzeko aukera aztertzen ari dira. Aste-ro sei egunetan entrenatzen dira, 2-4 orduz. Aitor Rementeria-aren ustez, "triatloia erresistentzia froga da eta azken proba, korrika, izaten da gogorrena beharbada, nekatuta heltzen zarelako eta bizikletatik jaistean hantek zeharo ezberdin lan egin behar dutelako. Igeriketean, berriz, gehienbat teknika falta sumatzen da"

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

Nesken futbol taldeak 9-1 irabaziz Almen taldeari zapatuan

Bergarako nesken futbol taldeak 9 eta 1eko emaitzarekin irabaziz Almen taldeari zapatu goizean Ipintzan jokaturako partiduan. Bittor Agirrebarrenak eta Gorka Larrañagak entrenatzen duten taldeak ez zuen inolako eragozpenik izan hiru puntuak eskuratzeko. Denboraldiko gol zaparradirik handiena lortu zuten mahoneroek. Etxeko- en golak Ainara Laskurainek (2 gol), Maider Urbinak (2 gol), Nagore Ricok (2) eta Silvia Valorrek eta Goreti Elortzak (bana) sartu zituzten. Bergararen aldeko goletako bat atxabaltarrek euren atean sartu zuten eta Almenek penalti jaurtiketa bati esker egin zuen bere gol bakarra. Aurten Bergararekin jokatzeko ari den Nagore Rico atxabaltarrak bi gol



Argazkian, jokalariek eta entrenatzaileak zapatuko partiduen atarian.

egin zizkion bere talde ohiari.

Zapatuko partiduen ondoren, bergararrak sailkapeneko erdialdean dira. Orain arte jokaturako sei partiduetatik hiru irabazi eta beste hiru galdu egin dituzte. Etxean partidua bakarra

galdu dute, Urolaren aurka. Irabazitako partiduetan gol asko egin dituzte, Antzuola (0-7), Amaiak-Bat (4-1) eta Almenen aurka. Bihar, zapatua, sailkapeneko azken postuetan dagoen Urkiren aurka jokatu du Bergarak.

AITOR ERAÑA / Korrikalaria

"Giroaz disfrutatzen goaz New Yorkera"

Mikel Larrañaga eta Julen Narbaizarekin batera, New Yorkeko maratoian parte hartuko du Aitor Erañak domekan, hilak 5. 30.000 lagun inguru izango dira irteeran.

G. Zelan animatu zarete New Yorkera joatera?

E. Aspalditik geneukan hara joateko ilusioa eta joan zen urtean hasi ginen ideia serio aztertzen. Fernando Otaño ere etortzekoa zen gurekin. Hala ere, suerte txarra izan du, uda aurretik lesionatu baitzen eta meniskotik operatu dute.

G. Partaidetza lortzea zaila da?

E. Espainian hiru agentzia dauka bidaia, inskripzioa, trasladoa eta hotela erreserbatzeaz ardu-

ratzen direnak eta agentziatarako batekin egin ditugu tramite guztiak. Guztira, 200.000 pezetan inguru balio du. Txarrena dollarraren gorakada izan da.

G. Kirola eta turismoa tartekatuko duzue...

E. Bai, eguaztenera arte han izango gara eta maratoian ere lasai egingo dugu korrika. Nik argazki kamera aldean eramango dut, hango giroaz disfrutatzen helburuarekin goazelako, karrera barrutik ezagutzeko asmoz.

G. Zelakoa da

ibilbidea?

E. Gogorra, gorabehera asko dituelako. Brooklyn, Bronx edo Harlem igaro ondoren, amaiera Manhattanen da, Central Parken. Bestalde, temperatura 8º ingurukoa da, korrika egiteko aproposa.

G. Zure zenbatgarren maratoia izango da?

E. Zazpigarrena. Azararen 26an Donostiako korritzeko ere gogo handia daukat. Ea 2 ordu eta 45 minutu inguruko denbora egiten duan Donostian.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Aretxabaleta

Infantilak

Zapatua. 11:30. Ipintza

Bergara-Aurrera Vitoria

Hirugarren maila

Zapatua. 15:45. Agorrosin

Bergara-Mondragon

Lehen mailako jubenilak

Zapatua. 17:30. Ipintza

ESKUBALOIA

Bergara-Almen

Jubenil mutilak

Gaur, eguakitza, 20:30. Kiroldegia

PILOTA

Bergara-San Esteban.

Jubenilak banaka.

Bergara-Aloña Mendi.

2. Mailako afizonatuak

Gaur, eguakitza, 20:00etan,

Udal Pilotalekuan

BAQUE TXAPELKETAKO FINALERDIAK

(zonaldekoak):

Jauregi (Soraluze)-Azaguirre (Soraluze)

Agirre (Eskoriatza)-Agirre (Antzuola)

Martitzenean, 19:30ean, Udal Pilotalekuan

EMAITZAK

FUTBOLA

Hernani 2; Bergara 2

Hirugarren maila

Bergara 1; Aurrera Ondarroa 0

2. erregionala

Bergara 9; Almen 1

Neskak

Bergara 1; Elgoibar 2

Ohorezko jubenilak

Aretxabaleta 0; Bergara 4

Lehen mailako jubenilak

Bergara 2; Mariaren Bihotza 2

Ohorezko kadeteak

Soraluze 2; Bergara 2

Bigarren mailako kadeteak

Almen 6; Bergara 3

Infantilak

SASKIBALOIA

Bergara 73; Loiola 91

Senior mutilak

Bergara 39; Askatuak 53

Jubenil mutilak

Bergara 40; Santo Tomas Lizeoa 56

Kadete mutilak

ESKUBALOIA

Bergara 20; Leitzarain 22

Senior mutilak

Bergara 14; Elgoibar 15

Kadete mutilak

PILOTA

Añorgak 22; Bergara 17

Jubenil banaka



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Bildurbarek-Buya	8-3
Fac-Eri	8-2
Irubide-Bar Ugarte	1-6
Torrekoa-Errotagain	3-8
Amoskibar-Bar Canalejas	4-7
Apa Oxemai-Pagomendi	1-8
Fac-Bar Canalejas	2-4

B MULTZOA

Kanpazar Harrob.-Manitou	0-5
Etengabe-Aterpe	1-9
Ortzi-Amilotx	4-0
Agirrebeña-Bayer	2-3
Pinturas Bergara-Suntsizaileak	9-2
Tom Cat-Vacalouras	4-1
Etengabe-Bayer	1-4

C MULTZOA

Ezinleike-Latex	17-6
Mongatxurak-Shaktale	8-2
Artusamak-Komando Piperrak	3-4
Mo(ko)lotov-Patxaran Team	1-7
A Ze Flaxa-Guadalest	5-1
Komando Piperrak-Guadalest	5-4

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

9:30: Amilotx-Agirrebeña	Apa Oxemai
10:30: Bildurbarek-Apa Oxemai	Fac
11:30: Bar Ugarte-Fac	Torrekoa
12:30: Eri-Torrekoa	Bar Ugarte
16:00: Pagomendi-Irubide jatetxea	Manitou
17:00: Manitou-Etengabe	Patxaran
18:00: Patxaran Team-Ezinleike	Shaktale
19:00: Shaktale-Mo(ko)lotov	K. Piperrak
20:00: K. Piperrak-Mongatxurak	Mo(ko)lotov

DOMEKAN BARRUAN

17:00: Errotagain-Amoskibar	Buya
18:00: Bar Canalejas-Buya	Guadalest
19:00: Guadalest-Artusamak	Aterpe
20:00: Aterpe-Ortzi	Artusamak

DOMEKAN KANPOAN

17:00: Vacalouras-Kanpazar Harrobia	Bayer
18:00: Bayer-Pinturas Bergara	Vacalouras

ARGI!

Liderrak sendo

Bar Ugarte, Aterpe eta Mongatxurak taldeek sendo jarraitzen dute aurreneko postuetan eta oraindik ez dute punturik galdu. Astebukaeran Fac, Ortzi eta Komando Piperrak taldeen aurka beren nagusitasuna erakutsi beharko dute.

Jokalariai zintzo

Antolaketa Batzordeak emandako datuen arabera, aurreko txartel hori gutxi erakusten ari dira epaileak. Antza denez, taldeek kiroltasun handiz jokatu dute oraingoz eta hori eskertzeko da.

Shaktale, Latex, Kanpazar

laz sailkapeneko goialdean ibilizen Shaktalek Mongatxurak taldearen aurka galdu zuen; Latexek eta Kanpazarrek gol zaparradak jaso zituzten.

mahoneroak




MARKEL EGAÑA BKEko atezaina

Puntu bat irabazi baino, bi puntu galdu genituen zapatuan Hernanin. Aurtengo denboraldiko partidurik onenetakoa jokatu arren, puntu bat besterik ez genuen lortu. Ia partidu osoan zehar zelaian nagusitu ginen eta 0-2ko emaitzarekin aurreratu ginen markagailuan. Bi goleko abantaila genuela, Igor Errastiri penalti garbia egin zioten, baina epaileak ez zuen ezer adierazi.

Partidua bukatzeko 20 bat minutu falta zirela, epaileak Arkaitz Aranari bigarren txartel horia atera zion eta jokalaria bat gutxiagorekin larri ibili ginen. Arana kanporatu eta handik gutxira, Hernanik lehenbiziko gola egin zigun eta berdinketa lor zezaketela ikusi zuten. Etxekoei dena ondo ateratzen zitzairen eta guk, aldiz, ez genuen zortirik izan. Partidua amaitzean zegoela, binakoa etorri zen eta, egia esateko, ez dauka esplikazio logikorik, eurak baino meritu gehiago egin baikenuen garaipena eskuratzeke.



GORA eta BEHERA



Bayer, K. Piperrak, Bar Canalejas
Bayer, Komando Piperrak eta Bar Canalejas taldeek jokaturako azken bi partiduak irabazi dituzte eta sailkapenean gora egin dute.

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	15	5
2. Bildurbarek Opel Lam	13	5
3. Bar Canalejas	15	5
4. Pagomendi	12	5
5. Errotagain	10	5
6. Fac	9	5
7. Apa Oxemai	4	5
8. Buya	4	5
9. Eri	3	5
10. Amoskibar	3	5
11. Torrekoa	0	5
12. Irubide jatetxea	0	5


B multzoa

	P	J
1. Aterpe	15	5
2. Ortzi	13	5
3. Pinturas Bergara	10	5
4. Tom Cat Argandolas	10	5
5. Amilotx	9	5
6. Manitou	7	5
7. Kanpazar	6	5
8. Vacalouras	4	5
9. Bayer	3	5
10. Agirrebeña jatetxea	1	5
11. Etengabe	1	5
12. Suntsizaileak	1	5

C multzoa

	P	J
1. Mongatxurak	15	5
2. A Ze Flaxa	12	5
3. Artusamak	10	5
4. Ezinleike	6	4
5. Guadalest	9	4
6. Guadalest	6	4
7. Patxaran Team	4	5
8. Latex	3	3
9. Txipiron	3	3
10. Shaktale	3	4
11. Mo(ko)lotov	0	4

Informazio hau babesle hauei esker:



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza
2A behe ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

Otsein Saria

Orain arteko partiduen ostean, sailkapen orokorra horrela dago:

Ander Berraondo 5 puntu
Txonan Gallastegi 4 puntu
Paco Santiago 4 puntu

Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

Partikularren telefono berriak eta aldaketak

- Telefono berria jarri baduzu

- Berrigara Gida 2000n zure telefonoa agertzen ez bada

- Berrigara Gida 2000n zure telefonoa edo helbidea oker agertzen bada

Berrigarara deitzea

eskertuko genizuke: 943 76 03 97.

Nahiago baduzu, zatoz bertara:

Irizar jauregia, Barrenkalea 33.

Urtarrilean edo otsailean deitu

bazenuen ere, berriz deitzea

eskertuko genizuke,

DATU GUZTIAK EGIAZTATU

ahal izateko.

.....**BerrigaraGida2001**

Mila esker zure laguntzatik.

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Matxiategi.
943 76 34 33.

Zubiaurre. 100 m².
Prezio ona. 943 76 28 49
edo 627 642 055.

Soraluze. 943 76 50 69.

Duplexa Urteagan.
Berriztua eta berogai-
luarekin. 43 76 73 07
(Belen).

Apartamentu txikia
Barrenkalea 34an.
Oso txukuna eta jantzia.
656 740 165.

Zabalotegi, ganbarare-
kin eta berriztua. 50 m².
Deitu 943 76 07 01
telefonora.

EROSI

Baserría erosi edo alo-
katuko genuke. 943 76
73 41 (Aintzane), arra-
tsaldez.

ERRENTAN EMATEKO

Logelak alokairuan, su-
kaldea erabiltzeko esku-
bidearekin. 943 76 15 40.

Etxea alokairuan Irabu-
ru 8an. 943 76 39 91.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktatuak
Deiak
Bestelakoak

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko nuke alo-
kairuan. 696 782 176
(Loli) edo 630 712 318
(Marta).

Pisua alokairuan hartu-
ko nuke. 943 76 40 79
(Karmen)

Etxea alokatu nahi dut
Bergaran edo inguruan.
943 76 30 84.

Etxea alokatu nahi
nuke. 943 76 90 83.

Apartamentu txiki baten
bila nabil. 655 747 321.

ETXE KONPARTITUAK

Pisua osatzeko, anima-
liak gustuko dituen la-
gunaren bila nabil.
Deitu 639 506 240
telefonora.

Gela edo pisu
konpartitua alokairuan
hartu nahi nuke.
Deitu 943 36 34 59
telefonora (Rakel).

BESTELAKOAK

Terreñoa salgai Errio-
xan, San Millan de la
Cogollan. 943 76 26 95.

2. GARAJEAK

SALDU

Ibargarai. 943 76 00 93.

S. Lorentzo.
943 76 14 97.

Bolu. 943 76 19 69.

Antzuolan, Ibarrondo
kalean. Apalekin.
943 78 70 08.

ERRENTAN EMATEKO

Boni Laskurain.
943 76 49 56.

Mugertza. 943 76 40 99.

Burdiñate. 943 76 02 34.

Boni Laskurain.
606 217 256.

3. LOKALAK

SALDU

Autobus geltokiaren
ondoan, bulegoa
(58 m²). 607 344 658.

ERRENTAN EMATEKO

Bi lokal (60 eta 50 m²)

San Juan. Gasa ipintze-
ko aukera. 943 76 21 15.

Lokala errentan Bolun
(100 m²) eta Arruriagan
(18 m²). Oso merke.
606 962 380.

4. LANA

ESKAITZAK

Neska, edozein laneta-
rako gertu. 600 600 531.

Emakumea, umeak
zaindu edo etxeko lanak
egiteko gertu.
943 76 56 92.

Lana egingo nuke
15:00etatik 17:00etara.
943 76 36 68 (13:00-
14:00 eta 19:00-21:00).

Mutil atzerritarra lane-
rako gertu. 686 662 271.

ESKAERAK

Neska edo andre eus-
kalduna behar da goize-
tan umeak zaintzeko.
943 76 53 27.

Pertsona euskalduna
behar da umeak zaindu
eta etxeko lanak egite-
ko. 943 76 70 33.

Neska behar da umeak
zaindu eta etxeko lanak
egiteko. 943 76 19 27.



**SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK**

AGENTEA

Ramon Maria Lili 6, behea
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54
Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneretik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00



**PABILIOIA
salgai
Amillaga 21ean.
Lehen solairua.
Karga-jasogailua
607 762 741**

**Martxan dagoen
TABERNA
ALOKATZEKO
moduan
943 76 23 66
656 772 291**



**DEBA
GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi, 2-behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**Etxebizitza berriak
Antzuola erdian**
• Aparteko lekuan eta
ingururik ederrenera
begira
• Primerako materialekin
jasoak
• 18.000.000 pezetatik
aurrera

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

Ingeles Filologian lizenziadunak ingeles eskolak ematen ditu.
943 76 30 28 /
659 331 741.

Marrakzi eta pintura eskolak ematen ditut.
943 76 40 14.

ESKAERAK

Batxilergoko 1. mailako eskola partikularrak jaso nahi genituzke.
653 749 990.

BESTELAKOAK

Frantsesa ikasteko taldea osatzeko, 7-9 urteko umea behar da.
943 76 24 33 (gauze).

6. IBILGAILUAK

SALDU

Ziklotorea.
943 76 54 11.

Trialeko motoa. 250 cc.
125.000 pta.
943 79 78 36.

Honda CB500 motoa (1996). 34 CVra mugatuta. Estrak. 678 084 367.

Renault Laguna. Bi urte eta erdi. 70.000 km.
943 76 45 73.

Fiat Tipo 2.0 16V (SS-AN). 686 457 610 (18:00etatik aurrera).

Derbi Variant motoa. Deitu 943 76 49 88 telefonora.

Opel Kadett 1.7 D (SS-AJ). 943 76 31 21.

Citroën Berlingo 2000 HDI. Otsailean erositia. Estrak. 610 384 896.

Scooter Skipper 125 motoa. Matrikulatua, ia berria. 943 76 61 05.

7. ANIMALIAK

SALDU

Yorkshire Terrier txakurkumeak. 943 76 18 96.

Hiru hilabeteko artzain txakurrak. 943 76 52 21.

8. DENETARIK

SALDU

Senar-emazteendako logela: Roche Bobois markako ohea eta mahaitxoak. 943 76 71 50.

Umeendako logela: zu-

riz lakatutako armairua eta sinfoniera.
943 76 71 50.

Piragua ia berria, gerriko estalkitoxa eta arraunarekin. Merke. 943 79 78 36.

Irristagailudun tronboia. Ia berria. 943 76 21 92.

Zanussi izozkailua, 7 kaxoiduna. Ia berria. Prezio ona. 943 76 12 01 edo 619 176 419.

Yamaha Hosseschrueders HC30R pianoa. 943 76 06 41 (gauze).

Ordenagailuaren bozgorailuak. 677 648 230.

Bulegoko zurezko mahaia eta marrazteko mahaia eta auklia. 607 344 658.

Jangelako altzari zaharrak: bi komoda tailatu eta mahaia, 6 auklirekin. 639 779 592.

Egongelako altzaria. 2,8 m. 943 76 41 31.

EROSI

Borda erosiko nuke. 943 76 26 82.

Txanpon zaharrak erosiko nituzke.

639 822 790 (Pello).

Bigarren eskuko saxofoi altua erosiko nuke. 943 76 29 67.

Bigarren eskuko umeendako kotxea erosiko nuke (bikieneztat). 943 76 19 27.

GALDU

Urre koloreko perla urdindun lepoko bat galdu nuen urri hasieran, Martoko eta Zubiaurre artean. 943 76 17 21.

AURKITU

Urriaren 29an emakume erlojua topatu nuen Burdiñate inguruan. 943 76 00 20.

Betaurrekoak eta giltzak agertu dira Zurra deroko Olabe okindegian. 943 76 01 26.

Zapelaitz tabernan Kerastase aterkin bat topatu dut. 943 76 12 86.

BESTELAKOAK

Botatzeko daukazu telebista hori gustura hartuko nuke edo merke erosiko. 943 77 91 25, lanorduetan (Jon).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

PRODUKZIO ARDURADUNAK, 2
Araba. 37412/5

KOMERTZIALAK
Gasteiz. 37473/5

PROGRAMATZAILE-DISEINATZAILEA
Ibai eskumaldea. 38045/5

SUKALDARI ARDURADUNA
Urola Kosta. 38205/3

TEKLISTA
Araba. 38698/1

PEIDIA
Ibai eskumaldea. 39599/3

DELINEATZAILEA
Santander. 39949/3

LANBIDE HEZIKETA II
Durangaldea. 40135/2

CNC LANGILEA
Mallabia. 40144/3

KOMERTZIAL SAILERAKO LANGILEA
Tolosa. 40368/2

MUNTATZAILEA
Arrasate. 40232/3

SOLDIATZAILEA
Llodio. 40234/2

CNC IRAKASLEA
Bilbo. 40370/2

GASOLINDEGIARAKO LANGILEA
Durangaldea. 40414/3

LANBIDE HEZIKETA II
Debabarena. 40467/4

PRODUKZIO ARDUR.
Debabarena. 40468/2

ELEKTRIZISTA INSTALATZAILEA
Errioxa. 40474/4

DELINEATZAILEA
Bilbo. 40591/2


IRAKASLEA
Araba. 40641/2

KOMERTZIALA
Bilbo. 40724/1

INGELES IRAKASLEA
Soria. 40734/1

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa. Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Aromaterapia ikastaroa



- Azaroaren 14tik abenduaren 14ra. Bi aukera:
 - Astelehen eta eguazten, 19:00etatik 21:00etara
 - Martitzen eta eguazten, 15:00etatik 17:00etara
- Izena emateko azken eguna azaroaren 10a
- Bazkideek 5.000 pta. Besteek 6.000 pta.
- Informazio gehiagorako: 943 76 36 61

GAIAK

- Aromaterapiari buruzko informazio orokorra.
- Olio esentzia aztertu eta produktuak egin:
 - Masajeak emateko lozioak
 - Kremak
 - Ukenduak
 - Aurpegiko tratamenduak: maskarillak
 - Txanpuak

- Estresa eta aromaterapia eta emozioak.
- Erlajazioa eta musikoterapia.
- Reflexoterapia.

Bakoitzak 5 produktu egin eta etxera eramateko aukera ere izango du.



ILE APAINNTZAILE lanetarako emakumea behar da
943 76 22 48

Jean Louis David
Ibargarai 43, Bergara

BELARDENDA

salgai

Zurraderon
943 76 58 83
(09:30-13:00)

Juan Martin Elexpuruk "Hamaika ipuin", bigarren ipuin-liburua kaleratu berri du

Izenburuak dioen bezala, 11 ipuin ditu eta Donostian aurkeztu zuen eguenean


Juan Martin Elexpuru idazle bergararrak "Hamaika ipuin" izeneko liburua kaleratu berri du Elkarlanean argitaletxearen eskutik. Batzuk luzeak dira eta beste batzuk laburrak. Gai aldetik, ez du ardatz jakin bat jarraitzen; ipuinak idazlearen obsesioetan oinarritzen dira.

Hamaika urte pasatu dira Juan Martin Elexpuru idazle bergararrak lehenengo ipuin liburua kaleratu zuela. "Txakur zaunkak atean" izan zen hura. Joan zen ostegunean bigarrena aurkeztu zuen Donostian eguenean: "Hamaika ipuin".

Elkarlanean argitaletxearekin kaleratu du, eta liburuaren izenburuak dioen bezala, hamaika ipuinez osatuta dago.

OBSESIOAK

Lehenengo ipuina, orain lau urte idatzi zuen Elexpuruk. Gainerakoak, etorri ahala idatzi ditu, unean uneko obsesioen gainean: 1936ko gerra, gatazka politikoa, bizimodu modernoaren estresa, amodioa... Tematika zabala da, eta ipuinek ez dute ardatz jakin bat jarraitzen; horrela azaldu du autoreak,



Elexpuruk kaleratzen duen bigarren ipuin-liburua da.

behintzat: "askotan gai edo giro nagusi baten inguruan antolatzen dira ipuin-liburuak; itsasoa, tentazioak, ostegunak, gezurrak... "Hamaika ipuin", aldiz, ez.

Bakoitzak izaten ditugu hiru edo lau obsesio eta horien gainean jarduten dugu gutxi gorabehera. Nik ere hori egin dut".

ORDENA KRONOLOGIKOA

Ipuinek ardatz jakin bat jarraitzen ez duten arren, ordena kronologikoa jarraitzen dute. Lehenengoa, "Gerra-urte", 36ko gerra zibilean oinarritzen da, eta azkena, "Etsidamu", geroran; izan ere, futurista da eta apokaliptiko samarra.

Estilo aldetik, ipuin errealistak dira gehientsuak, baina bada bat guztiz surrealista ere, Elexpururen esanetan; "Ubu Morrongurenen lanegun arrunt bat" izeneko hain zuzen ere. "Uned-eko Euskara departamentua itxi zutenekoa kontatzen dut bertan. Oso surrealista izan zen itxiera eta, horregatik, ipuin surrealista bat irten da".

Idazleak esan bezala, liburuan gai anitz aurki daiteke, bizimoduan ere denetik aurki daitekeen bezala. Ipuin batzuk serioak dira, dramatikoak besteak, baita barregarri samarrak ere, eta bateren bat erotiko samarra ere bai. Idazleak "pixka bat denetik da-goela dio".

Lokala erabiltzeko aukera zabaldu du Beart elkarteak

Beart Artista Elkarteak proiektu artistiko edo obra pertsonala garatu nahi duten guztiei elkartearen lokalak erabiltzeko aukera ematen die. Erabilera urte baterako izango da, eta baldintza hauek bete beharko dira: 18 urte baino gehiago izatea, eta curriculum eta landu nahi den lanaren me-

moria bat aurkeztea. Izena emateko, inprimaki bat bete beharko da, eta Kultura Etxean jaso daiteke. Eskae-rak azaroaren 10a arte jasoko dira.

Utziko diren guneak, eskaeraren araberakoak izango dira, eta erabilera pertsonala izango dute. Urteko kuota ordaindu beharko da.





Muxutruka eta Calendula bi clown-ak "Pekin, 36.002" antzezlaneko une batean

"Pekin, 36.002" clown parodia Novedades aretoan

Oihulari Clown antzerki taldeak eta Teatro Trokolok "Pekin, 36.002" antzezlan eskainiko dute gaur, eguakitzan, gaueko 22:30ean, Novedades aretoan.

"Pekin, 36.002" clown parodia da. Pekinen 1995. urtean egindako Emakumeen IV. Mundu Konferentzia du oinarri. Bertan 36.000 emakume bildu ziren, eta sexu diskriminazioarekin bukatzeko gobernuen inplikazioa eskatzea zuen helburu.

Muxutruka eta Calendula pailazok, konferentziaren ostean hainbat hausnarketa egin ondoren, ateratako ondorioen berri emango dute antzezlanean. Horrela, Pekinen bildutako emakumeekin bat egingo dute, kopuruan 36.002 izatera pasatuz.

Umore kodea erabiliz, Pekingo Huairoun bildutako gobernuz kanpoko erakundeen foru hartan gerta-

tutakoa kontatuko digute. Aldi berean, erdietsitako lorpenak baloratuko dituzte, eta sexuen arteko ezberdintasunei buruz ironiaz mintzatuko dira. Betiere clown jolasaren xarmtasun eta zentzugabetasunetik abiatuta, ikuskizunak dibertimendurako eta gogoetarako bidea zabaldu nahi du.

KOPRODUKZIOA

Gaur gauean ikusteko aukera egongo den clown saioa, bi antzerki talderen arteko koprodukzioa da: Oihulari Clown Bergarako taldea eta Teatro Trokolo nafarra. Lanaren sortzaile eta zuzendaria Virginia Imaz Oihulari Clown taldeko kidea da. Muxutruka eta Calendula, bi clown-ak, Raket Imaz, Oihulari Klowneko aktoreak, eta Isabel Aisa, Teatro Trokoloako antzezten dituzte.

salduenak urria

LIBURUAK

EUSKARAZ

1. AGUR EUSKADI
Juan Luis Zabala. Susa
2. AXA MIXA ZILARRA
Txiliku. Elkarlanean
3. HERRIAREN IRUDIA
Pablo Sastre. Susa
4. ABERTZALEAK ETA EZKERTIARRAK
Julen Zabalo. Elkarlanean
5. MANTXUT?
Argia

ERDARAZ

1. TIERRA SAGRADA
Barbara Wood. Grijalbo
 2. TRILOGIA DE CENTROAMERICA
Javier Reverte. Plaza y Janés
 3. EL ARBOL Y LAS NIEVES
C. Gurrutxaga. Temas de hoy
 4. LA QUINTA MUJER
H. Mankell. Tusquets
 5. CONOCER A DIOS
Deepack Chopra. Plaza y Janés
- Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba, Zangitu*


DISKOAK

1. EL VIAJE DE COPPERPOT
La oreja de Van Gogh
2. SAILING TO PHILADELPHIA
Mark Knopfler
3. EL ALMA AL AIRE
Alejandro Sanz
4. GRISA
Bide Ertzean
5. CORREOS
Platero y tu
6. PRIMITIVE
Soufly
7. MIRA QUE ERES CANALLA AUTE
Batzuk

Iturria: Etxepare-Bilintx, Zaiazko



☎ 943 76 20 61



Manufacturas LARRAÑAGA

Lan-babeserako artikuluak, lan-prebentzio eta seinaleztapena, lanerako jantzigintza

Leizeaga 1. Tf. eta faxa 943 76 59 53.
Posta kutxa 140. 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA

Ezker eskuma

1. Elkarlana. 2. Itsatsita dagoena indarrez askatu. 1999an.
3. Emakumea izena. Ez emea. 4. Aita. Automata.
5. Pisua. Pl., barazki-mota. 6. Fruta-mota. Animalia karraskari.
7. Iridioa. Xume. lodoa. 8. Alferra. Iparraldean, ardo. 9. Lehenengoa. Bokal errepikatua. Aldiak.
10. Ergel. Perukoa.

Goitik behera

1. Lemariak. 2. Babazorroa. Bokala. 3. Nik hura daramat eta hark ni... Gauza. 4. Akuri. Nebak. 5. Gaueko argi. Haurrak esertzeko erabiltzen den hitza. Uranioa. 6. Bostehun eta bat. Alkoholen bukaeran. Bokala. Bokala. 7. Europa. Kantari.
8. Tiro eta tiro ari dena. Edari alkoholdun. 9. Paderak.
10. Barazki-mota. Errep., txori-mota. Betekada.

Soluzioa

- Ezker eskuin:
1. Lankidetzeta. 2. Erauzi. laz.
 3. Maria. Arra. 4. Aba. Robot. 5. Zama. Lekak.
 6. Arana. Sagu. 7. Ir. Apal. I.
 8. Nagia. Arno. 9. A. Aa. Aroak. 10. Kaiku. Inka.
- Goitik behera:
1. Lemazainak. 2. Arabarra. A. 3. Narama. Gai. 4. Kui. Anaiak. 5. Izar. Apa. U. 6. Di. Ol. A. A. 7. E. Abeslari.
 8. Tiroka. Ron. 9. Zartaginak.
 10. Aza. Ku. Oka.

bonofotoa




Miguel Angel Elkoroberezibar

Zein da Gorlara bidean dagoen baserri honen izena?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Zein da Donostiako Orfeoiaeren zuzendaria?
A- David Azurza
B- Jose Antonio Sainz Alfaro
C- Leopoldo Aranguren
2. Zein da sortu berri den triatloi taldearen izena?
A- Burdinmutilak
B- Zaleak
C- Antxintxika
3. Zein da Juan Martin Elexpuren azken liburuaren izenburua?
A- Hamaika ipuin
B- Kuba triste dago
C- Tentazioak



Super BM emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du **BERRIGARAK** asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Olaia Zalakainentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Olaiari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Kanposantua** Galde Debalde: **1-A, 2-C, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE

1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____

Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

Koipesol
ekilore-olioa, litroa
128 PTA!
Super BM en beti eskaintzarik onenak!

Asteko programazioa

EGUAKITZA 3

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza.
13:55: Hamaika Magazin (errep.)
20:00/20:30/21:00: Berriak.
21:30: Astebete.
22:00: Soinuz blai.
22:30: Gatza eta Berakatza.

ZAPATUA 4

13:30: Asteko saioen errepika: Gatza eta Berakatza, Mahaiaren Bueltan, Hamaika Magazin, Soinuz Blai, Astebete.

DOMEKA 5

13:30: Asteko saioen errepika: Gatza eta Berakatza, Mahaiaren Bueltan, Hamaika Magazin, Soinuz Blai, Astebete.

ASTELEHENA 6

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza.
13:55: Astebete.
20:00/20:30/21:00: Berriak.
21:30: Goienasport. Debagoienean

Goitb

Goiena Telebista

Bergaran 41 kanalean

kirolen inguruan gertatutako guztia jasotzen du Gorka Etxabek kirol saio honetan.

22:00: Gatza eta Berakatza.

MARTITZENA 7

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza.
13:55: Goienasport (errepika).

20:00/20:30/21:00: Berriak.

21:30: Xeleberri.
 Ikaragarriak dira munduan zehar gertatzen diren berri xeblebre guztiak. Unai eta Iratxekin horien berri jasoko dugu.

22:00: Gatza eta Berakatza.

EGUAZTENA 8

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza.
13:55: Xeleberri (errepika).
20:00/20:30/21:00: Berriak.
21:30: Aurrez aurre. Antzuolaren txanda da. Oraingo honetan Imanol Larrea eta Edurne Galartza, andereño ohia, solasean arituko dira Antzuolako aspaldiko kontuen inguruan.
22:00: Gatza eta Berakatza.

EGUENA 9

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza.
13:55: Aurrez Aurre.
20:00/20:30/21:00: Berriak.
21:30: Hamaika Magazin. Sexualitatea, yoga, argazkigintza... eta gainera argazki kamara zoragarri bat irabazteko aukera. Deitu 943 71 23 93 telefonora eta utzi zure datuak.
22:00: Soinuz Blai. Miren Gonzalezek aurkeztuta, musika bideo klipak eta kontzertuen agenda.
22:30: Gatza eta Berakatza.

kontuan hartzekoa

Hamaika gai aztergai

Hamaika Magazin Eguena, 21:30

Aste honetan, Fernando Cristobal ginekologoak neraberoaren inguruko kezka eta arazoak izango ditu hizpide. Lehenengoko hilerokoak sortarazten dituen ardurak argituko ditu Fernandok.

Ohi bezela, sexuaz ere hitz egingo da saioan. Oraingo honetan antisorgailuen gaia aztertuko da Hamaika Magazinen. Noiz eta nola erabili, zeintzu diren egokienak, zeintzu erabilgarrienak...

Lorezaintzari eskainitako atalak azalea landarea izango du protagonista.

Jose Luis Armentiarren eskutik, egungo bizimodu azkar eta zoro honi lasaiago aurre egin ahal izateko hainbat teknika izango ditugu ikusgai yogari buruzko atalean.



Bestalde, badakizue, Hamaika Magazinen eta Ikatx argazkidendaren eskutik, hamar mila pezetatan baloratutako saria izango duzuela eskuragarri. Ez da hori sari makala, gero!

Hainbat gairi buruzko informazio zehatza, aisialdiz bete betean gozatzeko gomendioak... Hamaika gai Hamaika Magazinen, beraz. Eguenero, hemen, GOITB-n, 21:30ean.

ikustekoak!



Gatza eta berakatza

Azpeitxiko Iñazio Beldarrain.
Astelehenetik eguakitzera, 13:40.



Xeleberri

Munduan gertatzen diren xeblebrekeriak.
Martitzena, 21:30.



Aurrez aurre

Antzuolan andereño ibilitako Edurne Galartzarekin elkarrizketa.
Eguaztena, 21:30.



Or-Konpon taldea, 1942

Barrenkalean zegoen Lonbide tabernan biltzen zen herritar talde batek sortu zuen Or-Konpon elkarte. Berehala oso ezaguna bilakatu zen Bergaran zein inguruko herrietan ere. Bixente Jauregik esan digunez, “urteetan, Euskal Herrian, Bergarako enbaxadoreak izan genituen Or-Konponeko kideak, urtero irteeraren bat antolatzen baitzuten. Herrian ere sarritan egiten zituzten ekitaldiak. Alaitasuna izan zen bere ezaugarri nagusienetako bat eta, beti ere musikaz lagunduta, toki askotara heldu ziren”.

Goiko argazkia 1942. urtean San Martziale-ara egindako irteerakoa da. Antza denez, Or-Konponekoek egin zuten lehendabiziko irteera

izan zen hura eta esku artean estandarte darman Juan Cruz Imaz “Errentxeri”ren atzetik taldeko kideak agertzen dira. Juan Cruz Imazen ezkerrean, San Martzialgo ermitan eskaintza egiteko lore sorta eskuetan duena, Eduardo Muruamendiaraz. Bizkarra ematen ageri dena, txapel eta gerrikoarekin, Dionisio Gallastegi “Mou” igeltseroa da. “Errentxeri”k duen estandarte Simon Arrieta margolariak egin zuen eta jasotako informazioaren arabera, bertan azaltzen den gizona margotzeko Pako Basarri aukeratu zuen modelo.

Argazkia: Bixente Jauregi “Altzeta”

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldearen erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Ametz

EDERTZE ARETOA

■ Masterreka 19, behea. 943 76 46 53. ■


MIKROPIGMENTAZIOA



Ezpainak,
betileak...
Edertu eta
zaindu zaitez



Betiko depilazioa.
Osasuna zainduz,
minik gabe eta
zure azalarendako
arriskurik gabe.



LASER DEPILAZIOA LIGHTSHEERekin

Laser medikua



Gorosti

 Loradenda

Lore eta landare aukera zabala Lehorrak, naturalak, artifizialak eta abar

Kanposanturako lore sorta, koroa eta ontziak

Ezkontzetarako, eliza eta jatetxea apaintzeaz gain, lore sortak egiten ditugu

Lorategiak apaintzen ditugu

ZABALDU BERRIA



Matxiategi, 3

943 76 07 47 eta 679 31 62 72





Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik